


MOLEKULA KOBALENTEEN PROPIETATEAK

1.- EGOERA FISIKOA, URTZE ETA IRAKITE PUNTUAK

IRAKITEAN /URTZEAN VAN DER WAALSEN INDARRAK PUSKATZEN DIRA, EZ lotura KOBALENTEA. Horregatik orokorrean u.p eta i.p-ak **baxuak** dituzte, **molekulen arteko indarrak ahulak direlako**. KONPOSATU KOBALENTE gehienak **gasak eta likidoak** dira. Solidoak direnak oso bigunak dira.


IRAKITEAN /URTZEAN VAN DER WAALSEN INDARRAK PUSKATZEN DIRA, EZ lotura KOBALENTEAK.



Ad. F_2 ; Cl_2 gasak dira baina, **zenbat eta handiagoa bada molekula** (taldean jaistean atomoek erradioa handiagoa dute eta masa atomikoa ere handiagoa da) gero eta **mugikortasun gutxiago** izango du eta **ondorioz likidoak** (Br_2) edo **solidoak** ere bai (I_2) izan daitezke.

KOBALENTE APOLARRAK (HALOGENOAK)	Urtze puntua	Irakite puntua	Egoera fisikoa
F_2	-223	-188	Gaseosoa
Cl_2	-102,4	-34	Gaseosoa
Br_2	-7,3	58,8	Likidoa
I_2	113,5	184,5	solidoa

HIDROGENO ZUBIAK osatzen dituzten molekula kobalenteek, ura adibidez, urtze eta irakite puntuak **nabarmen altuagoak** dituzte **gainontzeko taldeko konposatu berdinekin** konparatzen baditugu. Van der Waals-en indarren artean, **hidrogeno zubiarenak sendoenak direlako**. Ondorioz, gehiago kostatuko da (energiari dagokionez) hidrogeno zubiak puskatzea, temperatura gehiago beharrezkoa da.

konposatua	Urtze puntua °C	Irakite puntua °C
H_2O 	0	100
H_2S	-62,9	-60,1
H_2Se	-64	-42
H_2Te	-54	-1,8

2.- DISOLBAGARRITASUNA

***Kobalente oso oso polarrak disolbatzaile polarretan** ondo disolbatzen dira, adibidez, uretan edo alkoioletan HF , HCl , SH_2
***Kobalente ez polarrak disolbatzaile ez polarretan** disolbatzen dira (CCl_4 edo disolbatzaile organikoak, adibidez bentzenoan, eterretan).

3.- EROALTASUN ELEKTRIKOA: EROALE TXARRAK DIRA

***Kobalente molekular gehienak ez dira eroaleak** ISOLATZAILEAK baizik, partikula kargaturik ez dagoelako.
***Kobalente oso oso polarrak** direnak **eroaleak** dira **uretan disolbatuta**, ioi aske sortzen direlako uraren polaritatearengatik. $HF, HCl, SH_2 \dots$
 $HF(aq) \rightarrow H^+(aq) + F^-(aq)$